

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure esperientzian oinarrituta, Mind Up bezalako aplikazio bat sortzea beharrezkoa dela iruditu zaigu, batez ere denboraz larri dabiltzan ikasleentzat. Gure artean eskolaz kanpoko ekintza ugari dituzten pertsonak daude, eta horiek guztiak denbira mugatua dute. Eskolaz kanpoko ekintzek hala nola kirolak (profesionalak edo ez), ikasleen arratsalde guztiak betetzen dituzte. Horrek zailtzen du ikasketak egiteko denbora izatea, eta horren aurrean Mind Up soluzio ezin hobea da. Aplikazioak ikasleen denbora kudeatzeko eta ikasketak errazteko laguntzeko laguntza eskaintzen du, bereziki eskolaz kanpoko ekintza askotan parte hartzen dutenentzat.

Mind Up aplikazioa, zehazki, denboraz mugatuak diren ikasleentzako oentsatuta dago. Aplikazioak argazkien bidez **laburpenak, eskemak eta apunteak** sortzen ditu, eta horrek ikasleei aukera ematen die denbora gutxian informazio garrantzitsua jasotzeko eta ikasketetan aurrera egiteko. Ikasleen artean denbora eskasia izanik, aplikazio honek aukera ematen die galduako ikasgaiak berreskuratzeko eta ikasteko erraztasunak edukitzeko. Adibidez, kirolari profesionalak ez dute denbora asko ikasketentzako, eta Mind Up aplikazioa oso erabilgarria izango da horientzat, ikasketa eta kirol artea oreka bat lortzeko. Horrelako erabiltzaileek aplikazio honen bidez, denbora gutxian hainbat ikasgai eta material errebasatzeko aukera izango dute. Horrela, aplikazioak lagunduko du denbora ez galtzea eta ikasketetan eraginkortasun handi alortzea.

Bestalde, Mind Up herrialde desberdinetako ikasleei zuzenduta dago. Aplikazioak hainba hizkuntza eskaintzen ditu, eta erabiltzaileek haien hizkuntza gogokoenean erabil dezakete. Adibidez, gaztelania egongo da Espainiatik eta Amerikako hainbat herrialdetik (Mexiko eta Argentina) etorritako ikasleentzat, eta hizkuntza desberdinen erabilera posible izango da. Hitz batzuk desberdinak izango dira herrialde bakoitzean, baina Mind Up-ek aukera emango du erabiltzaile bakoitzak bere hizkuntza eta jatorri geografikotik etorritako bertsioak aukeratzeko. Bestetik, ingelesa ere erabiliko da, eta aplikazioak aukera emango du Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako ingelesa erabiltzeko, hizkuntza desberdintasunak kontuan hartuta. Beste hizkuntza batzuk ere barne hartzen ditu, hala nola frantsesa, alemana, japoniera eta txinatarra. Horrela, munduaren parte handi bateko pertsonak haien hizkuntzan erabili ahalko dute.

Gure aplikazioa 16-30 urte bitarteko ikasleentzat pentsatuta dago, hau da, batxilergoaren hasieratik unibertsitatearen amaierara bitarteko adina. Adin horretan, ikasketak zailtzen hasten dira, eta Mind Up aukera ematen du denbora gehiago aurrezteko, ikasketa prozesua errazteko eta, batez ere, denbora mugatua duten ikasleek aukera gehiago edukitzeko. Adin horretan, ikasleek gero eta gehiago baloratzen dute ikasketak kudeatzeko eta denbira ahalik eta gehien aprobetxatzeko tresnak. Hala ere, adin hori ez duten ikasleek ere erabiltzeko aukera edukiko dute, baina hau bakoitzaren esku egongo da.

Mind Up doakoa izango da, eta erabiltzaileek mugikorra edo ordenagailua izan behar dute instalatu ahal izateko. Horrela, Mind Up-en baliabide guztiak doan erabiltzeko aukera edukiko dute diruz estu daudenak. Diruz estu ez dauden erabiltzaileek harpidetzak ordaindu ahalko dituzte eta hauek abantaila bereziak eskainiko dituzte.

Aplikazioaren baliabideak erabiliz, ikasleek ikasketetan eraginkortasun handiagoa lortuko dute eta denbora aurrezteko aukera izango dute.

